

ARNAS INFEKZIO AKUTUAREN (AIA) ZAINITZA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOA (EAE)

10. astea (2023/03/06-2023/03/12)

2022-2023 denboraldia

Lehen Mailako Arretan gripe-jarduerak eta ospitaleetako gripe-birusen detekzioek gora egin dute berriro, denboraldiko balio altuenetara iritsiz. COVID-19aren intzidentzia eta ABSren detekzio kopuruak baxu mantentzen dira.


- Lehen Mailako Arretako (LMA) sarean AIA tasa 541,23 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (510,90/100.000 aurreko astean).
- Mikrobiologiako laborategira bidalitako 101 lagin jagoleen % 70,3 baieztatu da, 48 gripe-birus (positibotasuna % 47,5) eta 5 SARS-CoV-2 (positibotasuna % 5,0) antzeman direlarik. Ez da ABSrik detektatu berriro ere.
- Osakidetzako ospitale-sarean AIA larriaren tasa 17,33 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (14,77/100.000 aurreko astean).
- EAEko Informazio Mikrobiologikoko Sistemari, gripe-birusaren detekzio kopuruak gora egin du berriro aste honetan. ABSren detekzioak baxu mantentzen dira.

AIAren jagoletza Lehen Mailako Arretan

Zaintza sindromikoa


Lehen Mailako Arreta-sarean hautemandako AIAren intzidentzia-tasa 100.000 biztanleko 541,23 kasukoa izan da (510,90/100.000 aurreko astean). Lurralde historikoka, tasa 482,02/100.000 izan da Araban, 520,10/100.000 Bizkaian eta 602,14/100.000 Gipuzkoan.

AIAren intzidentzia-tasa lurralde historikoaren eta aste epidemiologikoaren arabera. Lehen Mailako Arreta-sarea. 2022-2023, EAE



Adin-taldearen arabera, AIA tasa altuena 0-4 urtekoen adin-taldean eman da 2218,59 kasurekin 100.000 biztanleko, ondoren 5-14 urtekoen adin-taldea kokatzen delarik 100.000 biztanleko 854,14 kasurekin. Aurreko astearekin alderatuta, tasak gora egin du 45 urtetik beherako adin-taldeetan, bereziki 15 urtetik beherakoetan.

**AIAren intzidentzia-tasa adin-taldearen eta aste epidemiologikoaren arabera
Lehen Mailako Arretako sarea. 2022-2023, EAE**



Erakunde Sanitario Integratuaren (ESI) araberako intzidentziari dagokionez, tasek gora egin dute ESI gehienetan. Tasa handiena Goierri-Urola ESlan eman da, eta txikiena berriz, Bidasoan.


AIAren intzidentzia-tasak eta tasen arrazoia ESlaren eta aste epidemiologikoaren arabera. Lehen Mailako Arretako sarea. 2022-2023, EAE

ESI	Tasa 10. astea	Tasa 09. astea	Tasen arrazoia (% 95 KT)
Araba ESI	532,89	494,25	1,08 (1,00-1,16)
Arabar Errioxa ESI	656,10	596,46	1,10 (0,80-1,52)
Barakaldo-Sestao ESI	461,77	441,84	1,05 (0,93-1,17)
ESI Barrualde-Galdakao ESI	564,48	507,28	1,11 (1,04-1,19)
OSI Bilbao-Basurto ESI	536,67	502,02	1,07 (1,00-1,14)
Ezkerraldea-Enkarterri-Gurutzeta ESI	520,94	489,20	1,06 (0,97-1,17)
Uribe ESI	426,12	388,50	1,10 (1,00-1,20)
Bidasoa ESI	373,82	397,19	0,94 (0,80-1,11)
Debarrena ESI	718,45	704,50	1,02 (0,90-1,15)
Debagoiena ESI	528,49	492,53	1,07 (0,92-1,25)
Donostialdea ESI	556,52	518,15	1,07 (1,01-1,14)
Goierri-Urola Garaia ESI	729,43	740,93	0,98 (0,89-1,09)
Tolosaldea ESI	717,17	793,40	0,90 (0,80-1,03)

Gripe-sindromearen tasak gora egin dut berriro eta 52,78 kasu 100.000 biztanleko balioan kokatu da aste honetan (42,99/100.000 aurreko astean). Igoera hau esanguratsua izan da 15 urtetik beherakoetan. Tasak gora egin du Araban eta Bizkaian, eta beheraka txikia izan du Gipuzkoan.

Bronkiolitisaren tasa (2 urtetik beherakoetan) 201,04 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (128,25/100.000 aurreko astean). Bronkiolitis-tasak behera egin du Araban eta gora Bizkaia eta Gipuzkoan.


**Tasa lurralde historikoaren eta aste epidemiologikoaren arabera
Lehen Mailako Arretako sarea. 2022-2023, EAE**



Zaintza jagolea

Aste honetan, AIArako erreferentziako mikrobiologiako laborategian 101 lagin jagole aztertu dira eta horietatik % 70,3 baieztatu dira, 48 gripe-birus (26 AH1pdm09 eta 22 B motakoak) eta 5 SARS-CoV-2 antzeman direlarik. Ez da ABSrik detektatu, baina bai 9 parainfluenza, 9 errinobirus, 9 urtaroko koronabirus eta lagin berean bi edo hiru birus identifikatutako 11 koinfekzio.

**AIA intzidentzia-tasa LMA eta sare jagolean detektatutako arnas birus kopurua,
aste epidemiologikoaren arabera. 2022-2023, EAE**



Gripe-birusaren positibotasunak gora egin du berriro eta % 47,5ean kokatu da aste honetan (% 35,8 aurreko astean). SARS-CoV-2aren positibotasuna % 10aren azpitik mantentzen da (% 5,0) eta laugarren astez jarraian ez da ABSik detektatu.

Orain arte 42 lagin-jagole genotipatu dira estatuko Mikrobiologiako Zentro Nazionalen eta hauek dira detektaturiko anduiak: A/Norway/25089/2022(nH1N1) bat, 6 A/Sydney/5/2021(nH1N1), 25 A/Bangladesh/4005/2020(H3N2), 6 A/Slovenia/8720/2022(H3N2) eta 4 B/Austria/1359417/2021.

Positibotasunaren ehunekoa mikrobiologiako laborategira bidalitako lagin jagoleetan arnas birus motaren arabera. Sare jagolea. 2022-2023, EAE


	10. astea		09. astea		2022-2023 hasieratik	
	Detek.	Positib (%)	Detek.	Positib (%)	Detek.	Positib. (%)
Influenza	48	47,5	29	35,8	428	24,4
SARS-CoV-2	5	5,0	8	9,9	164	9,3
ABS	0	0,0	0	0,0	145	8,3
Metaneumobirus	3	3,0	3	3,7	114	6,5
Parainfluenza	9	8,9	6	7,4	66	3,8
Adenobirus	5	5,0	1	1,2	123	7,0
Errinobirus	9	8,9	10	12,3	247	14,1
Urtaroko CoV	9	8,9	4	4,9	94	5,4

AIA larriaren (AIAL) jagoletza Osakidetzako ospitale-sarean

Zaintza sindromikoa


AIAL (arnas infekzio akutu larria) kasuak AIA diagnostiko-kodea duten eta ospitaleratzea behar duten kasuak dira. AIAL tasa Osakidetzako ospitale-sarean 17,33 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (14,77/100.000 aurreko astean), 16,08/100.000 emakumeetan eta 18,67/100.000 gizonetan.

AIAL tasa sexuaren eta aste epidemiologikoaren arabera. Osakidetzako ospitale-sarea. 2022-2023, EAE



Adin-taldearen arabera, AIAL tasa altuena 64 urtetik gorakoen adin-taldean eman da, 50,34 kasurekin 100.000 biztanleko, ondoren 0-4 urtekoen adin-taldea kokatzen delarik 100.000 biztanleko 29,58 kasurekin. Aurreko astearekin alderatuta, tasak gora egin du adin-talde guztietan, 15-44 urteko taldean izan ezik. Igoera handiagoa izan da 15 urtetik beherakoetan.

AIALren intzidentzia-tasa adin-taldearen eta aste epidemiologikoaren arabera Osakidetzako ospitale-sarea. 2022-2023, EAE




Zaintza biologiko ez jagolea

Aste honetan, EAEko Informazio Mikrobiologikoko Sisteman, gripe-birusaren detekzio kopuruak gora egin du berriro, denboraldiko baliorik altuenera iritsiz. ABSren detekzioak baxu mantentzen dira.

Aste honetan detektatutako 464 gripe-birusetatik, 217 azpitipatu gabeko A motakoak izan dira, 11 A(H3), 71 A(H1)pdm09 eta 165 B motakoak. 2022/40 astetik 5042 detekzio erregistratu dira, 4301 (% 85,3) A motakoak eta 741 (% 14,7) B motakoak. Azpitipatutako A motako 1286 birusetatik, 900 (% 70,0) A(H3) eta 386 (% 30,0) A(H1)pdm09 izan dira.

Asteko Influenza eta ABS detekzio kopurua. IMS. 2022-2023, EAE




COVID-19aren zaintza espezifikoa

60 urte edo gehiagoko populazioan, 10. astean, COVID-19aren 7 eguneko intzidentzia-tasak gora egin du eta 31,13 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (18,22/100.000 aurreko astean); 26,57 gizonetan eta 34,72 emakumeetan (Iturria: ABG).

Osakidetzako Diagnostiko Biologikoko Sareko Mikrobiologia Zerbitzuen datuen arabera, txosten honen egunean, SARS-CoV-2aren aldaeratarako PCR proba espezifikoak lagin positiboan % 10ari egin zaizkie. Guztiak Omikron aldaerakoak izan dira, eta horietatik % 37 BA.2 azpialdaerakoak, % 37 BQ.1, % 16 XBB.1.5 eta beste % 10a BA.4/BA.5.

Osakidetzaren ospitale-egoeraren adierazleetatik lortutako datuen arabera, 10. astean SARS-CoV-2rako IAPD positiboa zuten 69 paziente ospitaleratu ziren EAEn (53 aurreko astean), 35 emakume eta 34 gizon. Ospitaleratutako pertsonen % 77 60 urtetik gorakoa zen.



Urteko 10. astean, COVID-19aren 27 kasu berri erregistratu dira EAeko adinekoen egoitzetako erabiltzaileen artean, azken zortzi asteetako baliorik altuena. Kasuak dituzten zentro soziosanitario kopurua 12 izan da, aurreko astean bezala.

Informazio gehiago [Osasun Saileko webgunean](#) eta ondorengo esteka hauetan: [SiVIRA](#) (estatukoa), [Flu News](#) (Europa, gripea), [FluNet](#), (Mundua, gripe), [OPS](#) (Amerika, gripea), [CDC](#) (AEB)

2023ko martxoaren 15ean

**Zainketa Epidemiologikoa
Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza**